

(otsaila - febrero)

Biraketa handia.

Eliza, Jaungoikoaren herria, erromes historian.

Kontzilioko gurasoek 1962ko abenduan atzera bota eben Elizari buruz aurkeztu zan lehenengo eskema. "Triunfalista, klerikal eta juridizistatzat" jo eben, hain zuzen be, azken gizaldietan Elizari buruzko ikusmoldea izan zana.

1964.eko azaroaren 21ean onartu zan azken testua, Lumen Gentium izenekoa, bibliaren eta Elizako Gurasoen kontzeptuez beteta dago. Dagoeneko Eliza ez da "gizarte perfektutzat" hartzen, ezta "Jaungoikoaren erreinu lez lurrean", "Jaungoikoaren herri" eta "salbamenezko sakramentu" dalako.

irakurketa eta alkarrizketarako gida

1. Aitatu

a) ulertzeko gatxen egiten jatzuna,



b) bizitzeko gatxen egiten jatzuna.



2. Beharbada ezaguna egingo jatzu "Jaungoikoaren herria" esamoldea, baina, jaubetu zara beronen edukin aberatsaz?, eta honek Elizaren bizitza eta misinorako dituan ondorioez? Patxadaz, batera jarri.



3. Antzeman ze nabaritzen dozun gaur egun "kontzilioko baieztapen" horreen inguruan bizi dogunaz. Poztasun-, itxaropen-, erantzukizun-, espiritualtasun-iturri ete da zuretzat?





Lumen Gentium (LG) Elizari buruzko konstituzino dogmatikoa. 1964.eko azaroaren 21a

1. Kristo herrien argi dugu. Horregatik, Sinodo santu hau, Espiritu Santuarengan bildua, irrikaz dago Elizaren aurpegian diz-diz egiten duen Kristoren argiaz gizon-emakume guztiak argitzeko, izaki guztiei Berri Ona hots eginez (ik. Mk 16, 15). **Eliza Jainkoarekin estu-estu batzearen eta gizadi osoaren batasunaren sakramentu bezalakoa edo ezaugarri eta tresna da Kristorengan.** Beraz, aurreko kontzilioen irakatsiari jarraituz, zehatz-mehatz azaldu nahi die bere fededunei eta mundu osoari bere izaera eta eginkizun unibertsala.

4. Honela, Eliza osoa ageri da «Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren batasunak» bildutako herri bezala.

9. Beraz, herri mesianiko hau, izatez gizadi osoaren batasun, itxaropen eta salbamenerako ernamuin ziurra da. Oraingoz gizon-emakume guztiak hartzen ez baditu ere eta sarri artalde txiki bat badirudi ere, **Kristok bizi, maitasun eta egiaren elkarte bezala ezartzen du, berrerospen unibertsalaren tresna izateko hartzen du eta lurbira osora bidali**, munduaren argi eta lurraren gatz izateko (ik. Mt 5, 13-16).



1964.eko urtarrilaren 5a. Batzarra Jerusalemen Paulo VI.aren eta Atenagorasen (Konstantinoplako Patriarka) artean. XV. mendetik ospatu barik egoan eliz buru bien arteko batzarrik.

Kontzilioaren amaieran, alkarri parkamena eskatzeko adierazpena sinatu zan.

herrien argia

Jesukristo herrien argia da, eta ez Elizearena. Elizeak, are gehiago, gauean eguzkiaren argia islatzen dauan ilargiak lez jokutzen dau.

sakramentua bezalakoa

Baieztapena zehaztu egiten da, zortzigarren sakramentu bategaz ez nahastatzeko. Zazpi sakramentuak, ha bera batasunaren sakramentu (batasuna Jaungoikoagaz eta gizadian) dan Elizan sortzen eta txertatzen dira.

ezaugarri eta tresna

Hona hemen sakramentuaren definizio erraza: adierazpen sinbolikoa eta esangurea gauatzeko bidea da aldi berean.

Eliza

Batzarra dierazoten dau. Mundu osoan zehar hedatutako Jaungoikoaren Herria, gotzaina buru dauan lekuko alkartea eta batzar liturgikoa, batez be, eukaristikoa da, aldi berean.

Jaungoikoaren herria

Elizaren irudi hau Itun Zaharretik dator. "Gizarte perfektuaren" irudiagaz alderatuz, herria errealdade historikoa da, martxan dagoana, ez perfektua, erro-mesa. Aurrea hartzen dauan "Jaungoikoarena" da, honegaz ezagutza eta intimitatean oinarritutako hartu-emona daualarik. Bateoak, erabateko bardintasuna emoteaz gainera, herri horretan txertatzen gaitu, nahiz eta bakotzak, multzo horretan, jagokon lekua eta egitekoak izan.

Elizea piramide erara ulertzeak balioa galtzen dau.



Lumen Gentium (LG) *Elizari buruzko konstituzino dogmatikoa. 1964.eko azaroaren 21a*

10. Fededun guztien apaizgoa eta apaizgo ministerial edo hierarkikoa, izatez eta ez graduz soilik, desberdinak badira ere, bata besteari zuzenduak dira; biek hartzen baitute, bakoitzak bere erara, Kristoren apaizgo bakarretik. Apaizgo ministerialak, berak duen eskumen sakratuarengatik, apaiz-herria moldatzen eta zuzentzen du, Kristoren ordezkari izanik eukaristi oparia egiten du eta herri osoaren izenean Jainkoari eskaintzen dio. Fededunek, ordea, errege-apaizgoaren indarrez esku hartzen dute Eukaristian, eta sakramentuak hartzean, otoitzean, eskerrak ematean, bizitza santuaren lekukotasunean, buru-ukitzean eta egintzazko maitasunean betetzen dute beren apaizgoa.

fededun guztien apaizgoa -
apaizgo ministeriala

Itun Barriarentzat, abade bakarra Jesukristo da. Eta honek Elizan irauten dau, bateoaren bitartez, danok garalako "abade" eta batzuk "ordenatu egiten diralako".

Ministerio ordenatua, bateatu guztien ministerioaren zerbitzura dago.

Lumen Gentium (LG) *Elizari buruzko konstituzino dogmatikoa. 1964.eko azaroaren 21a*

30. Jainkoaren Herriaz esan den guztia inolako bereizketari gabe laikoei, erlijiosoei eta elizgizonei badagokie, hala ere, laikoei, gizon eta emakumeei dagozkie bereziki, beren egoera eta egitekoagatik, zenbait gauza. Gure garaiko gorabeherak bereziak direlako, ardura handiagoz begiratu behar zaie haien oinarriari.

31. **Laiko** izena kristau fededun guztiei ematen zaie, ordena sakratuak hartu dituzten eta Elizak onartutako erlijioso-bizitzako kideei izan ezik. Hau da, **bataioaren bidez Kristorekin elkartuak diren, Jainkoaren Herria osatzen duten eta, beren erara, Kristoren apaiz, profeta eta errege egitekoan esku-hartzea eman zaien kristauak dira.** Hauek, euren dagokien heinean, kristau-herri osoaren misioa betetzen dute Elizan eta munduan.

...
Laikoei dagokie, beren bokazioagatik, Jainkoaren erreinua bilatzea munduko arazoetan jardunez eta hauek Jainkoaren asmoen arabera bideratuz. Munduan bizi dira; hau da, munduko lanbide eta eginkizun guztietan eta bakoitzean, **familiako eta gizarteko bizitzaren egoera arruntetan, horrek guztiak ehuntzen baitu haien bizitza. Haraxe dei egiten die Jainkoak,** Ebanjelioaren espirituak argi eginda beren ogibidean jardunez, mundua, legamiak bezala, barrutik santutu dezaten, eta horrela, fede, itxaropen eta maitasunaren errainuaz Kristo ager dezaten besteen aurrean batez ere beren bizitzaren lekukotasunaren bidez.

abade, profeta eta errege egitekoa

Jesukristoren egiteko hirukotxa da. Benetako kultua ospatu, Hitza transmititu eta zerbitzatu.

Bateoaren bidez, kristinatu guztiak dagoz konprometituta egiteko horretan. Hortik sortzen dira lau eliz jarduerak: iragarpena, ospakizuna, karidatea eta batasuna.

Haraxe

"Sekular" arloari jagoko, hau da, bizitzan eta eguneroko testuinguruan "mundutik" iges egin barik edo mundua saihestu barik.



OTOITZ EGIN

Isilunea egin, geure burua Hitza hartzera prestatzeko.

Batera abestuko dogu: Gizaki guztiok anaiak gara... (Kantu-liburu: kanta dagigun danok, 90 zk.)

Hitza hots egin: 1 Kor 1, 1-13 (edo 1, 1-9).

Alkarregaz egingo dogu otoitz hau. Barruratu, zer dinoskun entzun...

PUEBLO

Somos un pueblo,
un pueblo nuevo,
un pueblo en marcha.
Somos tu pueblo santo, Señor.

Somos un pueblo mesiánico.
Y llevamos a cuestras, como Abraham,
la Tierra Prometida,
oculta pero real,
imperfecta pero verdadera,
poseída y a la vez añorada.
Llevamos tus bienes mesiánicos, Señor.

Somos el Pueblo de Dios,
un pueblo muy especial,
el pueblo que Dios se ha forjado para sí,
para atraer a todos a su casa
y hacer un solo pueblo
de toda la tierra.
Un día estaremos todos.

Mientras llega ese día,
llevamos en la entraña
sangre de hijos y hermanos.
Y gritamos:
<¡¡Toda mujer es mi hermana
y todo hombre, mi hermano!!
Los más hermanos son los pobres.
Nuestro hermano mayor es Jesús>.

Y seguimos caminando en la arena.

HERRI


Herri bat gara
herri berri bat
badioan herri.
Zure herri santu gara, Jauna.

Mesias herri bat gara.
Eta Abrahamek bezala daramagu soinean
Agindu Lurra,
ezkutukoa baina badena.
ez akatsik gabea, baina egiazkoa
eskuan eduki arren, amestua.
Zeure mesias-onurak daramazkigu, Jauna.

Jaungoikoaren herri gara,
herri aparta,
Jainkoak beretzat eratu herria,
denak berera erakartzeko eratu
eta lur osoarekin
herri bakar bat egiteko eratu.

Egun hori etor dadinean
seme-alaba eta senide odola
daramagu erraieran.
Eta ozenki diogu:
Edozein emakume neure arreba ba,
eta edozein gizon neure anaia!!
senideenak pobreak ditut.
Gure senide nagusia Jesus dugu.

Eta eten gabeko joanean goaz hondarrean.



1964.eko azaroaren 13an, Paulo VI.ak "tiara" izten dau altaran "euren deadarra zeruraino helduz" oihuka dagozan txiroei laguntzeko dohaintza lez.

